



### Fitxa tekniko:

Izenburua: Hotsetik hitzera. *Nola bereganatzen dute hizkuntza haur euskaldunek?*

Egileak: M. José Ezeizabarrena eta M. Juncal Gutierrez Mangado

Saila: Saiakera

ISBN / EAN: 978-84-9109-224-7

Salneurria: 29 € [BEZ barne]

Orri kopurua: 352

Formatua: 21 x 28 cm

Materia: Hizkuntza



### Lana:

Umearen lehenengo begiratuak eta irrifarreak, estreineko pausoak, aurreneko hitzak... mirari txiki horiek noiz gertatuko zain egoten dira gurasoak, haurren garapenaren mugari gogoangarri diren horien lekuko izateko irrikitan.

Nola / noiz gertatzen da hotsak bakarrik egiten zekien jaioberria hitzun bihurtze hori?

Liburu hau haurrek, euskaldunek bereziki, hizkuntza-egagutza nola garatzen duten azaltzeko saiakera bat da, hizkuntzalaritzaren ikuspegitik idatzitakoa. Alde batetik, hizkuntza zer den eta nola garatzen den azaltzen da, beti ere kontuan izanda hizkuntzak hostunak zein hotsik gabekoak izan daitezkeela, eta hizkuntza-gaitasuna garatzeko baldintzak desberdinak direla zentzumen- edo adimen-urritasuna duten haurrentzat. Bestetik, Euskal Herriko egungo gizartearen pil-pilean dauden euskararen, elebitasunaren eta eleaniztasunaren inguruko galderak ere mahai-gaineratzen dira.

Adibidez,

Noiz hasten dira haurrak hizkuntza ikasten?

Noiz bukatzen dute: bost urterekin? hamarrek?

Haur guztiek berdin ikasten al dute hizkuntza? Euskara ere bai?

Bi urteko gelan haur batzuk hizti hutsak dira.

Beste batzuk berriz ez. Zer ote da normalena?

Kaltegarria al da bi hizkuntza txikitik ikastea?

Irakurleak galdera hauei eta beste askori erantzuteko baliagarriak diren hainbat ikerketa esanguratsuren emaitzak aurkituko ditu liburuan zehar.

### Egileak:

**M. José Ezeizabarrena** Irakasle Titularra da Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean. Euskal Filologian lizentziatua (UPV/EHU) eta Doktore Hizkuntzalaritzan (Hamburgeko Unibertsitatea). ELEBILAB laborategiko taldeburu dihardu 2016tik. Haur elebatar eta elebidunen hizkuntza-bereganatzea du aztergai nagusia eta baita hizkuntzak ukipen egoeran bereganatutako haur eta heldu elebidunen hizkuntza erabilera ere.

**M. Juncal Gutierrez Mangado** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazio Saileko irakaslea da. Ingeles Filologian lizentziatua (Deustuko Unibertsitatea) eta Doktore Ingeles Filologian (UPV/EHU). Gradu zein graduondoko mailatan eskolak ematen ditu UPV/EHU eta 2000tik, bere ikerketa LASLAB ikertaldearen baitan egiten du euskara, gaztelania eta ingelesaren jabekuntzaren inguruan, lehen edota bigarren eta hirugarren hizkuntza gisa. Besteak beste, hizkuntzen arteko eragina, ingelesaren jabekuntza CLILen, interakzioa edota morfosintaxia eta NZ-galdera eta erlatiboak egituren gainean egiten du bere ikerketa.